

**DESINFEKZIO PARKEKO, BAINUETXEKO, ALBAITARITZAKO ETA ANIMALIAK HARTZEKO ZENTROKO
ZERBITZUEN PREZIO PUBLIKOAK ERREGULATZEN DITUEN ARAUA**

10. araua

Oinarria

1. artikulua.- Ordainarazpen hau Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen lehen tituluko III. kapituluko 2. saileko 2. azpisailean xedatutakoari jarraikiz eta haren 28. artikuluan ageri den baimenaren babesean ezarri da.

Kudeaketarako eta diru-bilketarako arauak

2. artikulua.- 1) Arau honetan ezarritako prezio publikoak zerbitzua non eman eta toki horretan bertan jarritako eskudirutako kutxetan ordainduko dira.

2) Prezioak zerbitzua ematen hastean sortuko dira, nahiz horien zenbatekoa aurretik eskatzen ahal den gordailu gisa, osoki edo hein batean.

Tarifak

3. artikulua.- Aplikatu beharreko tarifak Arau honen eranskinean daude jasota, eta barne hartuko dute, behar izanez gero, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuota.

TARIFA-ERANSKINA

I. EPIGRAFEA - DESINFEKZIO PARKEA	
Desinfekzio-parkeko aretoetatik at egindako lan guztiei gutxieneko tarifa bat dagokie, kasuan kasuko lanari dagokionaz gain. Kanpoan egin beharreko zerbitzuen gutxieneko tarifa	25,15 euro
I.1. Desinfekzioak:	
- 0 – 100 m ² bitarte	18,55 euro
- 100 – 200 m ² bitarte	28,45 euro
- 200 – 500 m ² bitarte	41,60 euro
- 500 – 1.000 m ² bitarte	70,10 euro
- 1.000 m ² baino gehiago	87,65 euro
- Desinfekzioko bestelako zerbitzuak	18,55 euro
I.2. Intsektuak hiltzeko zerbitzu bakoitzeko:	
- Disolbatu gabeko produktuekin, litro bakoitzeko	25,15 euro
- Disolbatutako produktuekin, litro bakoitzeko	6,55 euro
I.3. Arratoiak hiltzeko zerbitzu bakoitzeko:	
- Amutegia (nahitaezkoa zerbitzu bakoitzean)	4 euro
- Errodentizida (100 gramo bakoitzeko)	1 euro

II. EPIGRAFEA – BAINUETXEA	
- Bainua bainuontzian	3,35 euro
- Dutxa	1,05 euro
- Eskuoihala	0,40 euro
- Xaboi-pastilla	0,40 euro
- Arropa garbitzea (5 kg)	5,65 euro
- Arropa lehortzea	5,65 euro
Gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonak Bainuetxeko tarifak ordaintzetik salbuetsita egonen dira, baldin eta auzo-unitate batean erregistratu eta zerbitzuak erabiltzeko txartela eskuratzen badute.	

III. EPIGRAFEA.- ALBAITARITZA-ZERBITZUAK	
Zerbitzu hauen erabiltzaileek Albaitarien Elkargoak kasuan-kasuan ezarritako tarifak ordaindu beharko dituzte kontroleko aplikazio informatikoak erabiltzeagatik.	
III.1. Amorruaren kontrako txertoa, identifikazioa (txipa) edo jabetza-aldaketa:	
- Kanpainako epearen barruan	Nafarroako Gobernuaren tarifa bera
- Kanpainako epetik kanpo	% 30eko erreargua
Gizartetik bazterturik dauden pertsonak tarifak ordaintzetik salbuetsita egonen dira, baldin eta auzo-unitate batean erregistratu eta Unitate horien onuradun direla agiri bidez egiaztatzen badute.	
III.2. Osasun-txartel berria ematea	7,25 euro
III.3. Txakurrak edo katuak Udalari ematea:	
- 4 hilabetetik gorako txakur edo katu bakoitzeko	52,15 euro
- 4 hilabetetik beherako txakur edo katu bakoitzeko	15,65 euro
III.4. Iruñeko Animaliak Hartzeko Zentroko animalien adopzioa: Tarifa hau ez zaie eskatuko Iruñeko Udalarekin lankidetzeta-hitzarmenak izenpetu dituzten animalien babeserako elkarte eta entitateei, baldin eta hitzarmen horietan adopzio-sistema aurreikusten badute.	
	10,40 euro
III.5. Pasaporte-agiria egitea, konpainiako animalien zirkulaziorako Europako Batasunean, salerosteko asmorik gabe	
	20,85 euro